# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 358

*24/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 10ekoa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Eva María Zapata Morcillo andrea kendu egiten baita Digestio Aparatuko Zerbitzu Sanitarioko buru kargutik, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan.*

Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen maiatzaren 16ko 419/2019 Ebazpenaren bidez, Eva María Zapata Morcillo andrea izendatu zen Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Digestio Aparatuko Zerbitzu Sanitarioko buru (2019ko maiatzaren 31ko EHAA, 102. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Eva María Zapata Morcillo andrea, kentzea Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Digestio Aparatuko Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostutik, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko urtarrilaren 13ko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2025eko urtarrilaren 10a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa).

Langileen zuzendaria,
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.